

Xedea

Dokumentu honetan inbertsio produktu honi buruz ezagutu beharko zenukeen oinarrizko informazioa aurkituko duzu. Ez da material komertziala. Legeak ezartzen duen informazioa da, produktu honen izaera, arriskuak, kostuak eta irabazia zein galera potentzialak ulertzen laguntzeko eta beste produktu batzuekin partekatzen laguntzeko.

Produktua

Izena:	95 / 5 Airbus 11-2026 NOE 29706 Produktu Egituratua
Identifikadorea:	NOE 29706
Fabrikatzailea:	Banco de Sabadell, S.A. IFZ A08000143
Harremanetarako datuak:	https://www.bancsabadell.com/cs/Satellite/SabAtl/Documentacion-PRIIPS/2000025609204/es/
Telefonoa:	963 085 000; Espainia kanpotik deitzen baduzu: +34 935 916 360
Agintari eskuduna:	Balore Merkatuaren Batzorde Nazionala
ODD ekoizpen data:	2021eko azaroaren 25

Erostera zoazen produktua ez da erraza. Zaila izan daiteke ulertzea.

Zer da produktu hau?

Mota

Finantza Kontratua

Xedea

Produktuaren xedea azpiko baten edo batzuen jokoari lotutako finantza-tresna batean inbertitzea da, kapitala galtzeko arriskua hartuz errentagarritasuna lortzeko. Jarraian aipatzen diren zenbatekoak zuk inbertitutako Zenbateko Nominal bakoitzari dagozkio. Kalkulu-agenteak zehaztuko ditu zenbatekoak.

Azpikoak

Etekin Airbus Group NVri dagokio (Bloomberg-AIR FP Equity).

Nola zehazten da etekina?

- 2022ko maiatzaren 30ean, Zenbateko Nominalaren % 95 jasoko duzu, 2021eko azaroaren 29 eta 2022ko maiatzaren 30 bitartean igarotako aldiarengatik % 0,55eko kupoia, ACT/365 kalkulaturik, eta Zenbateko Nominalaren % 95.
- Gainerako Zenbateko Nominal biziaren gainean (Zenbateko Nominalaren % 5a): Behaketa-data bakoitzean, Azpikoaren itxiera-prezioa Hasierako Mailaren berdina edo handiago bada, geratzen den Zenbateko Nominal biziaren gaineko % 0,55eko kupoia jasoko duzu dagokion Likidazio-datan. Aurreko aldietan kupoirik jaso ez bada, % 0,55eko beste kupoi bat jasoko duzu kupoia kobratu ez duzun aurreko aldi bakoitzarengatik. Bestela, ez duzu kupoirik jasoko.
- Iraungitakoan, hurrengoak gerta daitezke:
 - Azpikoaren Bukarako Maila bere Hasierako Mailaren % 80 edo handiago bada, gainerako Zenbateko Nominal bizia berreskuratuko duzu.
 - Bestela, Azpikoaren Bukarako Maila Hasierako mailaren % 80tik behera badago, gainerako Zenbateko Nominal bizia ken Hasierako Mailatik Azpikoak galdutakoa jasoko duzu.

Oinarrizko datak eta datuak

- Kalkulu-agentea: Banco de Sabadell, S.A.
- Gutxieneko Zenbateko Nominala: 50.000 euro
- Jaulkipen-data: 2021eko azaroak 29
- Iraungitze-data: 2026ko azaroak 30
- Hasierako maila: Azpikoaren itxiera-prezioa Hasierako Behaketa Datatan
- Bukarako maila: Azpikoaren itxiera-prezioen batezbesteko aritmetikoa Bukarako Behaketa-datan
- Behaketa Datak:
 - Hasierako Behaketa Data: 2021eko azaroak 25
 - Kupoiaren Behaketa Datak: 5 lanegun Likidazio-data bakoitzaren eta Azken Behaketa Dataren aurretik
 - Bukarako Behaketa Datak: 2026ko azaroak 19, 2026ko azaroak 20 eta 2026ko azaroak 23
- Likidazio-datak: azaroaren 29 guztiak, Iraungitze-datara arte. Asteburua edo jaieguna izango balitz, Modified Following arauari jarraituko zaio.

Zein txikizkako inbertizaileri dago zuzenduta?

Funtsean hauei zuzendutako produktua: Produktuan edo antzeko produktuetan alde aurreko ezagutza- edo esperientzia-maila aurreratua duen edozein bezerori, galeren % 5 bere gain hartzeko gaitasuna badu, eta <<arrisku ertaina-txikia>> arrisku-profila badu. Era berean, xede-bezeroen inbertsio-helburuak produktuaren epemugarekin koherentea den inbertsio-epari lotuta egongo dira, eragiketaren helburua errentak lortzea eta kapitala haztea izango da, eta zerbitzua honelakoa izango da: egikaritze hutseko zerbitzua (txikizkako bezeroak izan ezik), komenentzia-testa duen egikaritze hutseko zerbitzua, aholkularitza independentekoa, aholkularitza ez-independentekoa eta zorroen kudeaketa diskrezionalako zerbitzua.

Zein arrisku ditut eta zer lor dezaket horren truk?

Arriskuaren adierazlea

Arriskurik txikiena

1

2

3

4

5

6

7

Arriskurik handiena



Arriskuen adierazleak produktua 2026ko azaroaren 30era arte edukiko duzula ulertzen du. Ezingo duzu kontratua lehenago baliogabetu, Erakundearekin adostu ezean kontratuan ezarritako baldintzetan.

Arriskuaren adierazle laburtua beste produktuekiko produktu honen arrisku maila alderatzen duen gida da. Produktuak merkatuen eboluzioaren ondorioz edo guk ordaindu ezin dugulako dirua galtzeko aukerak bistaritzen ditu. Produktua 3 arriskumotaren arabera sailkatu dugu 7ra arteko eskalan, non 3 <<arrisku ertaina-txikia>> den. Horretarako, bi elementu hartzen dira kontuan: 1) merkatuaren arriskua (azpikoaren hegazkortasun arriskua eta interes tasaren arriskua); etorkizuneko jokabidearen ondorioz gerta daitezkeen galerak arrisku txikiko gisa sailkatzea; eta 2) kreditu-arriskua eta merkatuaren egoera txarrak Bankuak zuri ordaintzeko duen ahalmenean eragina izateko probabilitatea txikia izatea. Kreditu-erakundeak eta inbertsio-zerbitzuetako enpresak berregituratzeko eta suntsiarazteko Europako 2014/59/EB Zuzentaraua aplikatuz, ebazpen-agintariak birkapitalizatu beharreko finantza-tresnak beste balore batzuetan amortizatzea eta/edo bihurtzea edo jaulkitzailearen aktiboak eta/edo negozio-unitateak transmititzea erabakitzeko arriskua. Kapitalaren % 95a edo gehiago berreskuratzeko eskubidea du. Zenbateko horren gainetik dagoen kantitate oro, eta etekin osagarri oro, merkatuaren etorkizuneko eboluzioaren mende daude, eta ez dira ziurrak. Ezingo bagenizu zor dizuguna ordaindu, inbertsio osoa gal zenezake.

Errentagarritasun-egoerak

Ezin da zehazki aurreikusi etorkizunean merkatuak zein eboluzio izango duen. Barne hartzen diren egoerak, azken etekinak oinarritzat hartuz izan daitezkeen emaitza posibleetako batzuen adierazpen soila dira. Benetako etekinak txikiagoak izan daitezke.

Inbertsioa (10.000 euro)

Egoerak		1 urte	3 urte	5 urte Gomendatutako mantentze-aldia
Tentsio-egoera	Kostuak kendu ondoren jaso ahal izango dena	9.419 euro	9.481 euro	9.544 euro
	Urteko batez besteko etekina	-% 5,81	-% 1,76	-% 0,93
Egoera txarra	Kostuak kendu ondoren jaso ahal izango dena	9.828 euro	9.766 euro	9.814 euro
	Urteko batez besteko etekina	-% 1,72	% -0,78	-% 0,37
Tarteko egoera	Kostuak kendu ondoren jaso ahal izango dena	9.888 euro	9.874 euro	10.028 euro
	Urteko batez besteko etekina	-% 1,12	-% 0,42	% 0,05
Aldeko egoera	Kostuak kendu ondoren jaso ahal izango dena	9.906 euro	9.920 euro	10.028 euro
	Urteko batez besteko etekina	-% 0,94	-% 0,27	% 0,05

Aurreko egoeretan, aurrez definitutako behaketa-datetan lortutako balizko fluxuak (kupoiak eta/edo autobaliogabetzea) arriskurik gabeko tasan berrinbertitu daitezke, gomendatutako inbertsio-aldira arte.

Taula honetan hurrengo 5 urteetan zehar jaso ahal izango zenukeen dirua adierazten da, egoera desberdinen arabera eta 10.000 euro inbertitzen dituzula ulertuta. Aurkeztutako egoerek zure inbertsioek izan dezaketen errentagarritasuna azaltzen dute. Beste produktu batzuen egoerekin alderatu ditzakezu. Aurkeztutako egoerarako etorkizuneko errentagarritasuna kalkulatu da, inbertsio horrek iraganean izan duen aldaketaren datuetan oinarrituta, eta beraz, egoera horiek ez dira adierazle zehatzak. Jasoko duzuna aldatu egingo da merkatuaren bilakaeraren eta inbertsioa edo produktua mantentzen duzun denboraren arabera. Tentsio-egoerak merkatuen muturreko zirkunstantzian jaso dezakezuna adierazten du, eta ez du kontuan izaten guk zuri ordaindu ezin dizugun egoera bat. Produktu hau ezin da efektibo bihurtu. Hau da, zaila da iraungi aurretik saltzen baduzu jasoko zenukeen kantitatea zein den zehaztea. Lehenago ezingo duzu saldu edo garesti ordaindu beharko duzu edo galera handia izango duzu eginez gero.

Aurkeztutako zifrek produktuaren kostu guztiak hartzen dituzte, baita zure aholkulariaren edo banatzailearen kostuak ere. Zifrek ez dute kontuan hartzen zure zerga egoera pertsonala, zeinak eragina izan dezakeen jasoko duzun zenbatekoan.

Zer gertatuko litzateke Banco de Sabadell, S.A.-k ordaindu ezingo balu?

Finantza-kontratu hau ez da bankuko gordailu bat eta, ondorioz, ez du konpentsazio edo berme baten erregimenaren estaldurarik. Hortaz, iraungitakoan Bankuak ezingo balu ordaindu, kaudimenik ez duelako, bezeroa Bankuko gainerako hartzekodun arruntekin bilduko da, eta pribilegioa edo bermea duten hartzekodunen mendean geratuko da; beraz, mendeko hartzekodun eta akziodunen aurretik soilik izango du lehentasuna.

Zein dira kostuak?

Etekinaren murrizketak (RIY) zuk ordaintzen dituzun kostu osoek lor dezakezun inbertsioaren etekinean duen eragina adierazten du. Kostu osoek kostu bakunak, ohikoak eta osagarriak hartzen dituzte kontuan.

Hemen adierazitako zenbatekoak hiru mantentze aldiri dagozkien produktuaren kostu metatuak dira. Barne hartzen dira aurretik irteteagatik gerta daitezkeen penalizazioak. Zifrek zuk 10.000 euro inbertituko dituzula aurreikusten dute. Zifrak aurreikuspenak dira, beraz, etorkizunean alda daitezke.

Kostuak denboran zehar

Inbertsioa (10.000 euro)

Egoerak	Irteera 1 urteren ondoren	Irteera 3 urteren ondoren	Irteerarekin (gomendatutako mantentze-aldiaren bukaeran)
Kostu osoak	176,54 euro	176,87 euro	76,44 euro
Urteko etekineko murrizketan duen eragina	% 1,77	% 0,59	% 0,15

Kostuen osaera

Hurrengo koadroak hauxe adierazten du:

- Kostu mota desberdinek inbertsioaren etekinean izan dezaketen urte bakoitzeko inpaktua gomendatutako mantentze-aldiaren bukaeran;
- Kostuen kategorien esanahia.

Koadro honetan urteko etekinean duen eragina ikus daiteke

Kostu bakunak	Sarrera-kostuak	% 0,15	Inbertsioa egiten duzunean ordaintzen dituzun kostuen inpaktua. Kostuen inpaktua prezioan sartuta dago. Kantitate honetan zure produktuaren banaketa kostuak sartzen dira.
	Irteera kostuak	EA	Iraungitze datan bere inbertsioaren irteera kostuen inpaktua.
Ohiko kostuak	Zorroaren eragiketen kostuak	EA	Guretzat produktuaren azpiko inbertsioen erosketak eta salmentak izango duten kostuen inpaktua.
	Beste ohiko kostu batzuk	EA	Zure inbertsioen kudeaketaren urteko kostuen eta II. atalean bildutako kostuen inpaktua.
Kostu osagarriak	Etekin-komisioak	EA	Ez dagokio (EA)
	Partaidetzak kontuan	EA	Ez dagokio (EA)

Zenbat denboraz eduki behar dut inbertsioa, eta dirua lehenago atera dezaket?

Gomendatutako mantentze-aldia: 5 urte

Gomendatutako mantentze-aldia produktuaren iraungitze datari dagokio. Arren, kontuan izan produktua iraungitze-dataren aurretik baliogabetzea ez dagoela aurreikusita, likideziazirik ez duelako. Edozein kasutan ere, Entitatea kontratuan aurreikusitako baldintzen lehenagoko baliogabetzean sartuko balitz, baliogabetze hori ezingo litzateke kontratatutako nominalaren % 1 baino gehiago izango.

Nola erreklama dezaket?

Produktu honen edo jasotako zerbitzuaren inguruan kexarik edo erreklamaziorik aurkeztu nahi baduzu, Bezeroen Arreta Zerbitzuarekin jar zaitezke harremanetan, <https://www.bancsabadell.com> guneko harremanetarako formularioaren bitartez edota postaz, hurrengo helbidean: Bezeroen Arreta Zerbitzua - Banco Sabadell Gunea, Can Sant Joan industrialdea. Calle Sena, 12, 08174 Sant Cugat del Vallès edota posta elektronikoko bidez, hurrengo helbidean: SAC@bancsabadell.com, baliabide honen erabilera 59/2003 Legearen arabera denean, abenduaren 19koa, sinadura elektronikokoa. BAZari erreklamatu ondoren, badago BMNBari erreklamatzeko aukera.

Beste datu interesgarri batzuk

ODD honetan egin daitekeen ekintza oro Banco Sabadell web orrian edo BS Online webgunean egongo da eskuragarri, bezeroaren posizioko kontuan.